

Importe total (1 todo terreno largo techo alto): 3.375.000 pesetas (20.284,16 euros).

5.- ADJUDICACION:

- 5 Furgonetak diesel.

a) Adjudicatario: Nombre: Automoción Agromotor, S.A.

Dirección: Alto de Armentia, 7.

01007 Vitoria-Gasteiz.

NIF: A-1.274.794.

b) Importe de adjudicación: 10.500.000 pesetas (63.106,27 euros).

1 todo terreno largo.

a) Adjudicatario: Nombre: Garaje Segad, S.A.

Dirección: Portal de Gamarra, 48.

01013 Vitoria-Gasteiz.

NIF: A-1.007.129.

b) Importe de adjudicación: 3.370.000 pesetas (20.254,11 euros).

c) Resolución de adjudicación: Decreto Foral número 124/99 de fecha 28 de junio, del Diputado General.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de julio de 1999.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas Y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA,
FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

5.113

ACUERDO 577/1999, del Consejo de Diputados de 6 de julio, relativo a la aprobación definitiva de la Delimitación de Suelo Urbano del término municipal de Aramaio.

Por Orden Foral número 337/1999, de 17 de marzo, se aprobó con carácter provisional, la nueva Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Aramaio.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Aramaio, disposición que se realizó con fecha 18 de marzo de 1999, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Aramaio con fecha 24 de marzo de 1999.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

El Ayuntamiento de Aramaio, solicitó con fecha 10 de abril de 1999, una prórroga extraordinaria de quince días para el estudio de la documentación enviada que, fue concedida por Orden Foral número 579/1999, de 29 de abril. El citado texto legal fue comunicado al Ayuntamiento de Aramaio con fecha 4 de mayo de 1999, siendo recepcionado por el mismo con fecha 7 de mayo de 1999.

Con fecha 26 de abril de 1999, el Ayuntamiento de Aramaio presentó recurso de reposición contra la mencionada Delimitación de suelo, en el sentido de no coincidencia de la línea perimetral de la Delimitación de suelo con la de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como disconformidad con los valores asignados en la Ponencia de Valoración existente en el mencionado Ayuntamiento de Aramaio.

El recurso de reposición fue resuelto de forma parcialmente estimatoria, mediante Orden Foral número 693/1999, de 19 de mayo, siendo comunicada con fecha 20 de mayo de 1999 y recepcionada por el Ayuntamiento de Aramaio con fecha 26 de mayo de 1999.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 4º de la referenciada Orden Foral, el Ayuntamiento de Aramaio no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

Zenbateko osoa (lur-orotako bat sabai altuko): 3.375.000 peseta (20.284,16 euro).

5.- ESLEIPENA:

- 5 furgoneta diesel.

a) Esleipen hartzailea: izena: Automoción Agromotor, S.A.

Helbidea: Armentia gaina, 7.

01007 Vitoria/Gasteiz.

IFZ: A-1.274.794.

b) Esleipen zenbatekoa: 10.500.000 pezeta (63.106,27 euro).

Lur-orotako luze bat:

a) Esleipen hartzailea: izena: Garaje Segad, S.A.

Helbidea: Gamarrako atea, 48.

01013 Vitoria/Gasteiz.

IFZ: A-1.007.129.

b) Esleipen zenbatekoa: 3.370.000 pezeta (20.254,11 euro).

c) Esleipen ebazpena: 124/99 Foru Dekretua, diputatu nagusiak ekainaren 28an emana.

Vitoria/Gasteiz, 1999ko uztailaren 1a.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

**OGASUN, FINANTZA
ETA AURREKONTU SAILA**

5.113

577/1999 ERABAKIA, Diputatuen Kontseiluak uztailaren 6an emana, Aramaioko udal barrutiaren hiri lurzorua mugapenari behin betiko onespina emateari buruzkoa.

Martxoaren 17ko 337/1999 Foru Aginduaren bidez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari loturik dagoen hiri lurzoruari buruz Aramaioko udal barrutirako berriki egindako mugapenari behin-behineko onespina eman zitzaion.

Legezko araudi horretako xedapen zatiaren 4. artikuluan Aramaioko Udalarari haren berri emateko agindu zen, eta 1999ko martxoaren 18an bidali zen ohartarazpena eta 1999ko martxoaren 24an jaso zuen Aramaioko Udalak.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzeko 1989ko uztailaren 19an emandako 42/89 Foru Arauak 11. artikuluan 4. puntuan xedatzen duenez, kasuan kasuko udalari entzuteko epea hamabost eguneko izango da, eta epe horretan egoki iruditzen zaiona esan ahal izango du.

Aramaioko Udalak 1999ko apirilaren 10ean hamabost eguneko luzapen ohiz kanpoko eskatu zuen bidali zitzaion dokumentazioa aztertzeko, eta apirilaren 29ko 579/1999 Foru Aginduaren bidez eman egin zitzaion. Legezko testu hori 1999ko maiatzaren 4an bidali zuen Aramaioko Udalerari, eta 1999ko maiatzaren 7an jaso zuten.

Aramaioko Udalak birjarpen errekurtsua aurkeztu zuen lurzorua mugapenaren kontra 1999ko apirilaren 26an, ez baitzetozen bat ez lurzorua mugapenaren lerro perimetrala planeamenduko arau subsidiarioetakoarekin, ez mugapenaren balioak Aramaioko Udalean dagoen balioztapen ponentzian jasotako balioekin.

Birjarpen errekurtsua zati batean onartuz ebatzi zen, maiatzaren 19ko 693/1999 Foru Aginduaren bidez. Ebazpenaren berri 1999ko maiatzaren 20an bidali zen eta 1999ko maiatzaren 26an jaso zuten Aramaioko Udalean.

Jakinarazpena egin zenetik hamabost eguneko epea igarota, aipatutako Foru Aginduaren 4. artikuluan zehazten den gisan, Aramaioko Udalak ez du desadostasunik agertu hartutako ebazpena dela-eta.

Aurrekoagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ACUERDO:

ARTICULO PRIMERO.- Aprobar la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Aramaio, de conformidad con lo establecido en las Normas Subsidiarias de Planeamiento aprobadas por Orden Foral número 148/1999, de 17 de marzo.

ARTICULO SEGUNDO.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

ARTICULO TERCERO.- El presente Acuerdo será publicado en el Boletín del Territorio Histórico de Alava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Aramaio, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de julio de 1999.— El Diputado General, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

5.177

Orden Foral número 413, de fecha 9 de julio de 1999, por la que se subsana el error detectado en el periodo hábil de caza, establecido por Orden Foral número 347/99 de 21 de junio, para la media veda en la temporada 1999-2000.

Mediante Orden Foral 347/99 de 21 de junio, se fijaron los periodos hábiles de caza así como las vedas especiales del Territorio Histórico de Alava, durante la temporada 1999-2000.

En el párrafo primero del apartado 1.3.1. del artículo 1º) de dicha Orden, se fijaba el siguiente periodo hábil de caza para la Media Veda:

“En toda clase de terrenos cinegéticos los días hábiles serán el 15, 19, 21, 22, 26, 28 y 29 de agosto, y el 9, 11, 12, 16, 18 y 19 de septiembre, con horario de sol a sol”.

Habiéndose detectado un error en dicha disposición, es por lo que procede mediante la presente Orden Foral corregir el mismo.

Vistos los informes preceptivos en su virtud y haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Subsanar el error detectado en el párrafo primero del apartado 1.3.1. del artículo 1º) de la Orden Foral 347/99 de 21 de junio, por el que se establece el periodo hábil de caza para la Media Veda durante la temporada 1999-2000 mediante la sustitución de dicho párrafo por el que a continuación se indica:

“En toda clase de terrenos cinegéticos los días hábiles serán los jueves, sábados y domingos desde el día 14 de agosto al día 16 de septiembre, ambos incluidos”.

El Diputado Foral titular del Departamento de Agricultura, JOSE ANTONIO SUSO PEREZ DE ARENAZA.

ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGO ARTIKULUA.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari loturik dagoen hiri lurzoruari buruz Aramaio udal barrutirako egindako mugapena onestea, Planeamenduko Arau Subsidiarioetan ezarritakoarekin bat etorriaz (martxoaren 17ko 148/1999 Foru Aginduaren bidez onartu ziren arau subsidiarioak).

BIGARREN ARTIKULUA.- Aurrekoa gorabehera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauak, uztailaren 19ko 42/89 zenbakikoak, 2. artikulua b) puntuko 1, 2 eta 3 zenbakietan populazio gunetik kanpo dauden hiri izaerako eraikinek okupatutako lurzoruen tratamenduaz dioena aintzat hartu behar da.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratuko da, bai eta Lurralde Historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan ere. Horretaz gain, jendaurrean erakusgai jarriko dira 15 eguneko epeaz, interesatuek erreklamazioak egin ditzaten. Jendaurreko erakustaldia Aramaio Udaleko bulegoetan egingo da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzeko 1989ko uztailaren 19an emandako 42/89 Foru Arauak, 11. artikuluko 5. puntuan, eta, arau hori erregelamenduz garatzeko, Diputatuen Kontseiluak 1992ko abenduaren 15ean emandako 1.080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan ezartzen duten moduan.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko uztailaren 6a.— Diputatu nagusia, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

NEKAZARITZA SAILA

5.177

413 zenbakiko Foru Agindua, 1999ko uztailaren 9koa, ziren bidez ekainaren 21ean onartutako 347/99 Foru Aginduan ehizatze baimendutako aldiei dagokienez agertu zen akatsa zuzentzen den.

Ekainaren 21ko 347/99 Foru Aginduaren bidez 1999-2000 denboraldiko ehizarako egunak eta Arabako Lurralde Historikoaren debekualdi bereziak finkatu ziren.

Agindu horren 1. artikuluko 1.3.1. puntuaren lehenengo paragrafoan debekualdei erdirako ehiza aldi hau finkatu zen:

“Ehiza esparru mota guztietan baimendutako egunak honakoak izango dira: abuztuaren 15, 19, 21, 22, 26, 28 eta 29 eta irailaren 9, 11, 12, 16, 18 eta 19, egunsentitik ilunabarreraino”.

Xedapen horretan akats bat dago, eta, horregatik, Foru Agindu hau onartu da hura zuzentzeko.

Aurrekoagatik, arauko txostenak ikusirik eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT:

Ekainaren 21eko 347/99 Foru Aginduaren 1. artikuluko 1.3.1. puntuaren lehenengo paragrafoan 1999-2000 denboraldiko debekualdi erdian izango den ehiza aldia finkatzerakoan egindako akatsa zuzentzea, paragrafo hori honako honekin ordezkatzu:

“Ehiza esparru mota guztietan baimendutako egunak honakoak izango dira: abuztuaren 14tik irailaren 16ra bitarteko ostegun, larunbat eta igande guztiak, lehenengo eta azken egunak barne”.

Nekazaritza Saileko foru diputatua, JOSE ANTONIO SUSO PEREZ DE ARENAZA.